

Maiatzaren 14ra arte, Mirian Isasiren Doppelar Eco Tac proiektua erakutsiko da Montehermoson

Montehermosoko aurreko proiektu artistikoen deialdiko hirugarrena eta azkena da; aurtengo deialdian izena emateko epea martxoaren 20an amaituko da

Martxoaren 11tik maiatzaren 14ra arte ikusi ahalko da Montehermoson Mirian Isasiren Doppelar Eco Tac proiektua, 2016ko proiektu artistikoetarako deialdiako hirugarrena. Egileak berak eta Kultura, Hezkuntza eta Kirol zinegotzi Estibaliz Cantok aurkeztu dute gaur prentsaurrekoan.

Soinua eta haren formalizazioa bizipenetatik ikertzea zen proiektuaren helburua, fisika abiapuntuz hartuta. Erresonantzia magnetikoak imanak eta irrati-uhin indartsuak erabiltzen ditu gorputzaren irudiak sortzeko. *Doppler efektuaren* bidez egiten da hori, hain zuzen ere, Christian Andreas Doppler fisikari austriarrak aurkitu zuena. Objektu batek pertsona batengana hurbiltzean edo berarengandik urrutiratzean egiten duen doinuak frekuentzia ezberdina du. Odolean errebote egiten duten ultrasoinuak ezberdinak izango dira, odol-isuriaren norabidearen eta abiaduraren arabera. Ultrasoinuen uhinetako aldaketa horien bitartez, ekografoak interpretatu egin ditzake horiek eta kolore zehatz bat esleitu frekuentzia bakoitzari.

Instalazioan proiektuaren hiru fase nagusiak erakusten dira: erresonantzia magnetiko batzuetan lortutako soinu gordinek osatzen duten partitura, orkestra baten interpretazioa, eta musikarekin solasean ari diren ikus-entzunezko bost pieza, beste elementu batzuekin batera.

Erakusketaren osagarri bi jarduera antolatu dira. Martxoaren 11n (larunbata), 20:30ean, kontzertua izango da atarian, zeinean proiekturako partitura joko baita. Martxoaren 17an (ostirala), 18:00etatik 20:00etara, “Zentzumenen poetikak” lanegi-bisitaldia egingo da, erakusketaren edukiak jorrazteko; 15 urtetik gorakoentzat izango da, eta izen-ematea doakoa.

Iazko deialdiko proiektu artistikoen arteko hirugarrena eta azkena da hau. Aurtengo deialdian izena emateko epea martxoaren 20ra arte dago irekita, eta ikus-entzunezko proiektu batentzako laguntza ere izango da.

Mirian Isasi

Miriam Isasi (1981) Arte Ederretako doktore da, EHU eta UNAMetik (Mexiko). Prozesuen eta esperimentazioaren arteko zubiak sortzea da artista eta ikerle horren lanaren ardatza.

Jarrera garaikide batetik, antropologiari, historiari, aktibismoari, parasitismoari, paisaiari eta memoriari keinuak eginez eraikitzen du bere diskurtsoa, horiek elikagaitzat erabiliz. Legegabeziak eta mugako espazioak bilatzen ditu, tonu ironiko eta absurdo batez, eta

instalazioaren bidez, egilearen eta espazioaren arteko harreman zuzena lantzen du,
sorkuntzaren alderdi emozionalena jasoz.

Doppelar Eco Tac de Mirian Isasi, estará expuesto en Montehermoso hasta el 14 de mayo

Es el tercero y último de los proyectos artísticos de Montehermoso, cuya convocatoria para este año concluye el 20 de marzo.

El tercero de los proyectos artísticos 2016, Doppelar Eco Tac, de Miriam Isasi, se expondrá en Montehermoso desde mañana 11 de marzo y hasta el próximo 14 de mayo. Lo presentaban en rueda de prensa hoy la propia autora, y la concejala de Cultura, Educación y Deporte, Estíbaliz Canto.

El proyecto, tiene como objetivo indagar entorno al sonido y su formalización desde lo vivencial, empleando la física como motor de partida. La resonancia magnética emplea imanes y ondas de radio potentes para crear imágenes del cuerpo. Esto se realiza mediante el *efecto Doppler*, que fue descubierto por el físico austriaco Christian Andreas Doppler. El efecto consiste en que cuando un objeto se aleja o se acerca a una persona, el sonido que emite varía en su frecuencia. Los ultrasonidos que rebotan en la sangre serán diferentes según la dirección y la velocidad del flujo de sangre. Mediante estas alteraciones en las ondas de ultrasonido, el ecógrafo puede interpretarlas y asignar un color concreto para cada frecuencia.

El proyecto se plasma en una instalación que muestra las tres grandes fases del proyecto: la partitura compuesta a partir de sonidos brutos objetivos de varios RMs, la interpretación realizada por la orquesta, y cinco piezas audiovisuales que dialogan con la música, entre otros elementos.

La exposición se acompaña en esa ocasión de dos actividades, el sábado 11 a las 20:30 con un concierto que se realizará en el atrio y en el cual se interpretará la partitura compuesta para el proyecto, y el viernes 17 de marzo, de 18 a 20 horas con el taller-visita “poéticas sensoriales” que trabajará los contenidos de la exposición. Dirigido a personas mayores de 15 años con inscripción gratuita.

Este es el tercer y último de los proyectos artísticos del año pasado. Cabe recordar, que hasta el 20 de marzo está abierto el plazo de convocatoria de este año, que incluye como novedad una ayuda para un proyecto audiovisual.

Mirian Isasi

Miriam Isasi (Vitoria-Gasteiz, 1981) es doctora en Bellas Artes por la UPV/EHU y la UNAM (Ciudad de México). Artista e investigadora su trabajo se centra en generar un puente entre lo procesual y lo experimental.

Desde un posicionamiento contemporáneo, genera un discurso que se construye a partir de guiños a la antropología, la historia, el activismo, el parasitismo, el paisaje y la memoria como

fuelle de alimentaci3n. Busca los vaci3s legales y los espacios de l3mite, con un tono ir3nico y absurdo, en los que, a trav3s de la instalaci3n, trata la relaci3n directa del autor con el espacio unificando el aspecto m3s vivencial del acto creativo.